

## MUk hitzarmena sinatu du Vic-eko Unibertsitatearekin

2012/05/11

Mondragon Unibertsitateak eta Universitat de Vic-ek bien arteko lankidetzaren harremanak estutu dituzte Hezkuntza Zientzien alorrean, aliantza estrategiko batekin unibertsitate bien arteko sinergietan sakontzeko.

Hain zuzen, gaur, Mondragon Unibertsitatean, lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Mondragon Unibertsitateko errektore Josu Zabalak eta Universitat de VICeko errektore Jordi Montañak, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZIKO) dekanok Nekane Arratibelek eta fakultate horretako doktoretza-programa honen arduradun Amelia Barquinek lagunduta, unibertsitate bien artean *“Hezkuntzako Berrikuntzan eta Esku-hartzean”* baterako doktoretza-programa bat egiteko.

Horrela, datorren ikasturte akademikotik aurrera (2012-2013), behin ANECAk programa onartu eta gero, Mondragon Unibertsitateak eta Universitat de VICek batera emango dute *“Hezkuntzako Berrikuntzan eta Esku-hartzean Doktoretza”* Mondragon Unibertsitateetik eta Universitat de VICetik titulu ofiziala lortzeko ibilbide hau. Gainera, doktoretzen erregularizaziorako azken dekretuaren ondoren, bi unibertsitateen arteko aurreneko baterako doktoretza-programatariko bat izango da.

Lankidetzaren hitzarmenak sei urteko iraupena izango du eta 80ko hamarkadatik unibertsitate biek hezkuntza-alorrean duten harremana (doktoregaien arteko prestakuntza- eta ikerketa-lankidetzaren) sakonduko du. Hori dela eta, programa unibertsitate bientzat aberasgarria izango da.

Hitzarmenak, era estrategikoan, doktoregaien eta irakasleen mugikortasunaren alde egiten du, eta unibertsitate biek ikerketa-lerroak nahiz ikerketa-taldeak sendotzea du helburu, gai horietan sakontzeko eta prestakuntza-prozesu osoan ikasle eta irakasleen hezkuntza-eskaintza hobetzeko. Horri esker, unibertsitate bietako doktoregaiek nahiz irakasleek beste esperientzia batzuk ezagutuko, unibertsitate bietako prestakuntza- eta ikerketa-jardueretan parte hartuko eta ikertzaileen artean sareak sortuko dituzte.

Unibertsitate biek programa berritzaile horren inguruan finkaturiko helburuak honako hauek dira: hezkuntzan ikerketa-lerro osagarriak sustatzea; baterako ikerketa-proiektuak sustatzea, erakunde bietako ikerketa-taldearen artean; erakunde biek inguruko ikastetxeekin lankidetzaren esperientziak partekatzea; ikerketa-karreraren ikasleek aukera handiagoak izatea; eta ikertzaileen masa kritiko egokia bermatzea.

Doktoretza-programa egin nahi duen ikasleak unibertsitate bietako batean egin behar du izena emateko eskabidea. Hortaz, ondorio akademikoak eta administratiboak dagokienez, matrikulatu den unibertsitatearekin izango du lotura. Doktoretza-programa euskaraz, gaztelaraz eta katalanez emango da.

Mondragon Unibertsitatearen eta Universitat de VICen harremana 80ko hamarkadan hasi zen, erakunde biek zituzten antzekotasunak zirela eta: unibertsitate txikiak, gazteak eta unibertsitatearen eginkizuna ulertzeko antzeko modua, bai hezkuntzaren ikuspuntutik, bai ingurunearekiko inplikazioagatik.

Harrezkero unibertsitate biek hainbat proiektutan jardun dute lankidetzan. 1989an umeentzako ipuin-bilduma argitaratu zuten. 1991n Lehen Hiztegia argitaratu zuten, euskarazko eta katalanezko oinarritzko hiztegia; izandako arrakasta dela eta, hiztegi horren hirugarren edizio berritua argitaratu da. Gainera, Mondragon Unibertsitateak, Universitat



de VICekin, metodologiari, curriculumari eta antolakuntzari buruzko gogoetak partekatu ditu. Unibertsitate bien arteko irakasleen eta irakasleen bisitak etengabekoak izan dira, harremana estutzeko eta irakasleak nahiz ikasleak beste esperientzia batzuekin aberasteko.